# UPV/EHUko GRADU AMAIERAKO ETA MASTER AMAIERAKO LANENTZAKO FARMAKOLOGIAKO JANSSEN GELAKO SARIEN II. EDIZIOAREN DEIALDIA

## 1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Janssenek eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) Farmakologiako Janssen Gela sortzeko sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan aurreikusitako ekintzak betetze aldera, Farmakologiako Janssen Gelako jardun-eremuarekin zerikusia duten Gradu Amaierako eta Master Amaierako lan onenak saritzeko UPV/EHUk **JANSSEN GELAKO SARIEN** II. ediziorako deialdia egiten du. Jarduera hauek honako hauetan oinarritzen dira:

- Osasun-baliabideen administrazioa eta kudeaketa.
- Pazienteen parte-hartze aktiboa osasunarekin lotutako prozesuetan.
- Digitalizazioa eta adimen artifiziala aplikatzea osasun-arloko laguntza- eta ikerketa-prozesuetan.
- Doitasun-medikuntza sartzea erabaki klinikoak hartzean.
- Osasun-emaitzak hobetzeko irtenbide berritzaileak garatzea.
- Farmako eta medikamentuen erabilera arrazionala eta eraginkorra sustatzea.
- Balioan eta berrikuntzan oinarritutako baliabide farmakoterapeutikoen kudeaketa.
- Osasun arloko profesionalen etengabeko prestakuntza, aurreko puntuetan azaldutako printzipioetan oinarritutako arreta-ereduetan.

Deialdi honen helburua 2022-2023 ikasturtean aurkeztu, defendatu eta ebaluatu diren UPV/EHUko ikasleen ezaugarri horietako lanik onenak aitortu, agerian jarri eta saritzea da.

Sariak bi kategoriatan banatuko dira: bata, Gradu Amaierako Lan (GRAL) onenaren saria, 1.500 eurokoa, eta, bestea, Master Amaierako Lan (MAL) onenaren saria, 2.000 eurokoa.

# CONVOCATORIA DE LA II EDICIÓN DE LOS PREMIOS AULA JANSSEN EN FARMACOLOGIA A TRABAJOS FIN DE GRADO Y TRABAJOS FIN DE MÁSTER DE LA UPV/EHU

## 1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

En cumplimiento de las acciones previstas en el marco del Convenio de colaboración suscrito entre Janssen y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) para la creación del Aula Janssen en Farmacología, la UPV/EHU convoca la II Edición de los **PREMIOS AULA JANSSEN** a los mejores Trabajos Fin de Grado y Fin Máster en materias relacionadas con el ámbito de actuación del Aula Janssen en Farmacología. Estas actividades se centran en:

- Administración y gestión de recursos sanitarios.
- Participación activa de los y las pacientes en los procesos relativos a la salud.
- Aplicación de la digitalización y la inteligencia artificial en los procesos asistenciales y de investigación en salud.
- Incorporación de la medicina de precisión en la toma de decisiones clínicas.
- Desarrollo de soluciones innovadoras para mejorar los resultados de salud.
- Promoción del uso racional y eficiente de fármacos y medicamentos.
- Gestión de recursos farmacoterapéuticos centrada en valor e innovación.
- Formación continuada de profesionales de salud en modelos asistenciales basados en los principios descritos en los puntos previos.

El objetivo de esta convocatoria es reconocer, visibilizar y premiar los mejores trabajos de estas características del alumnado de la UPV/EHU presentados, defendidos y evaluados el curso académico 2022-2023.

Se otorgarán premios en dos categorías: un premio al mejor Trabajo Fin de Grado (TFG) por valor de 1.500 euros y otro premio al mejor Trabajo Fin de Máster (TFM) por valor de 2.000 euros.

Sariak finkoak izango dira, titulazioa lortu zuenarentzat, eta besterenezinak.

Los premios serán fijos, destinados a la persona que obtuvo la titulación e intransferibles.

## 2. HAUTAGAIEN BALDINTZAK

Aurkeztutako lanek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 2022-2023 ikasturtean UPV/EHUko edozein Unibertsitate-Gradu (GRAL) edo Master (TFM) ofizialetan matrikulatutako ikasleek egindakoak izango dira.
- 2022-23 ikasturtean defendatutako eta ebaluatutako lanak izango dira, eta haien kalifikazioa gutxienez 7koa izango da.
- Aurreko ataletan azaldu diren Farmakologiako Janssen Gelako jarduerekin zerikusia izan beharko dute. Zalantzarik izanez gero, Gelako Zuzendaritzak zehaztuko du GRALek eta MALek deialdiaren xede diren jarduerekin duten kidetasuna.

Lanak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal izango dira.

## 2. REQUISITOS DE LAS Y LOS ASPIRANTES

Los trabajos tendrán que cumplir los siguientes requisitos:

- Deberán haber sido presentados por alumnado matriculado en cualquier Grado (TFG) o Máster Universitario oficial (TFM) de la UPV/EHU durante el curso 2022-2023.
- Deberán haber sido defendidos y evaluados durante el curso 2022-2023, debiendo estar calificados al menos con un 7.
- Deberán guardar relación con las actividades del Aula Janssen en Farmacología descritas en apartados previos. La Dirección del Aula determinará, en caso de duda, la afinidad de los TFG y TFM con las actividades objeto de la convocatoria.

Los trabajos podrán ser presentados en euskera, castellano o inglés.

## 3. ESKAEREN FORMALIZAZIOA, ENTREGATZEA ETA EPEAK

Lanak bere egileek aurkeztuko dituzte, banaka bidaliz. Pertsona bera ezin izango da bi modalitateetara aurkeztu Sari hauetako deialdi berean edo hurrengoetan.

### 3.1. Eskaerak aurkezteko modua

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Farmakologiako Janssen Gelaren webgunetik. Aplikazioei buruzko galderak helbide elektroniko honetara bidal daitezke: ehugela-janssen@ehu.eus .

Farmakologiako Janssen Gelatik eskaera jaso izanaren berri emango da, bai eta eskaeraren egokitasunaren berri ere, gaiari, eskatzailearen baldintzei eta aurkeztutako agiriei dagokionez.

## 3. FORMALIZACIÓN, ENTREGA Y PLAZOS DE LAS SOLICITUDES

Los trabajos serán presentados por los autores/as, remitiéndolos de manera individual. No podrá presentarse la misma persona a ambas modalidades en la misma o en sucesivas convocatorias de estos Premios.

### 3.1. Forma de presentación de solicitudes

Las solicitudes se presentarán de forma telemática desde la página web del Aula Janssen en Farmacología. Las consultas de las solicitudes podrán ser remitidas a la dirección de correo electrónico: aulaehu-janssen@ehu.eus.

Desde el Aula Janssen en Farmacología se informará de la recepción de la solicitud, así como de la adecuación de la misma en cuanto a temática, requisitos de la persona solicitante y documentación presentada.

### 3.2. Dokumentazioa

Deialdian parte hartzeko, eskatzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Online eskabide-orria, datu pertsonalak, harremanetarako datuak eta aurkeztutako lanaren datu orokorrak barne.
- Egilearen NANaren edo identifikazio agiri ofizial baliokidearen kopia.
- Lana 2022-2023 ikasturtean defendatu eta kalifikatu dela eta egileak lortutako kalifikazioa frogatzen dituen ziurtagiria edo egiaztagiria.
- GRAL edo MALaren laburpena, Sarirako egokia delako arrazoiak bereziki nabarmenduz (gehienez 600 hitz).
- GRAL edo MALaren alea, PDF formatuan. Bertan, lanaren egilearen datu pertsonalak (izen-abizenak), eta inplikatutako Gradu edo Master ofizialaren identifikazioa agertuko dira.
- Lanaren tutoreek eta/edo zuzendariek sinatutako adostasun-gutuna.

Isilpeko lanen kasuan, egoera horren berri emango da dagozkion neurriak har daitezen.

### 3.3. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko irailaren 25ean hasi, eta 2023ko urriaren 31n amaituko da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo zuzendu daitezkeen akatsak baditu, Sariaren eskatzaileari eskatuko zaio, gehienez 10 egun balioduneko epean, akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko, eta, hala egiten ez badu, eskaera bertan behera geratuko dela ohartaraziko zaio.

Deialdi honetako Epaimahaiak deialdia ebazteko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatzen ahal izango du.

## 4. EPAIMAHAIA, BALORAZIO-IRIZPIDEAK ETA ERABAKIA

### 4.1. Epaimahaia

Epaimahaiak hiru kide izango ditu: Zientzia

### 3.2. Documentación

Para participar en la convocatoria las personas solicitantes remitirán:

- Formulario de solicitud online incluyendo datos personales, datos de contacto y datos generales del trabajo presentado.
- Copia del DNI, o documento de identificación oficial equivalente del autor/a
- Certificado o comprobante que demuestre que el trabajo ha sido defendido y calificado en el curso académico 2022-23
- Breve resumen del TFG o TFM haciendo especial mención a los motivos por los que se considera que es adecuado para el Premio (máximo 600 palabras).
- Ejemplar del TFG o TFM en formato PDF, conteniendo los datos personales (nombre y apellidos) del autor/a del trabajo e identificación del Grado o Máster Oficial implicados.
- Carta de conformidad firmada por las personas tutoras y/o directoras del trabajo.

En el supuesto de trabajos confidenciales se indicará dicha circunstancia para adoptar las medidas correspondientes.

### 3.3. Plazo de solicitudes

El plazo para la presentación de solicitudes comienza el 25 de septiembre de 2023 y finaliza el 31 de octubre de 2023.

Si la documentación aportada fuera incompleta o presentara errores subsanables, se requerirá a la persona solicitante del Premio para que, en el plazo máximo de 10 días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos necesarios, con advertencia de que, si no lo hiciese, se considerara como solicitud desistida.

El Jurado de esta convocatoria podrá solicitar cuanta información complementaria considere oportuna para la resolución de la convocatoria.

## 4. JURADO, CRITERIOS DE VALORACIÓN Y RESOLUCIÓN

### 4.1. Jurado

El Jurado estará compuesto por tres personas:

eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak izendatutako pertsona bat, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak izendatutako pertsona bat, eta Janssenek sustatzen duen Sareko Berrikuntza-Katedra bateko pertsona bat, UPV/EHUko Janssen Gelatik kanpokoa.

UPV/EHUko Farmakologiako Janssen Gelako Zuzendaritzak zainduko du epaimahaikideek lotura zuzenik ez dutela aurkeztutako lanen egileekin edo tutoreekin, eta epaimahaikideek hizkuntza desberdinetako lanak ebaluatzeko hizkuntza-gaitasuna dutela.

Epaimahaiak iritzia eskatzen ahalko die epaimahaikide ez diren profesional, ikertzaile edo espezialistei.

una persona designada por el Vicerrectorado de Desarrollo Científico-social y de Transferencia, una persona designada por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco y una persona perteneciente a una de las Cátedras de Innovación en Red promovidas por Janssen, ajena al Aula Janssen de la UPV/EHU.

La Dirección del Aula Janssen en Farmacología de la UPV/EHU velará por que en el Jurado no figuren personas con algún vínculo directo con la autora o autor o con la tutora o tutor de los trabajos presentados y para que las personas que conformen el Jurado cuenten con las competencias lingüísticas para evaluar los trabajos en las diferentes lenguas.

El Jurado podrá pedir opinión a personas profesionales, investigadoras o especialistas ajenas al mismo.

**4.2. Balorazio irizpideak**

Sariak emateko lanen balorazioa kualitatiboki egingo da honako hauen arabera:

- Lanaren kalitatea, honako hauek barne hartuta: behar bezala zehaztutako helburuak, metodologiaren egokitasuna, proiektuaren diseinua, datu-tratamenduaren xehetasuna, eta azalpenen argitasuna.
- Proposamenaren izaera berritzailea, garrantzia eta potentziala, honako hauek barne hartuta: gaiaren, ikuspegiaren edo arloaren berritasuna eta ekarpenen eragin potentziala, aplikazioa eta interes soziala.
- Farmakologiako Janssen Gelaren eta Sareko Berrikuntza-Katedren helburuetarako ekarpena.

Ez dira baloratuko, lehen fase batean, Janssen Gelako Zuzendaritzak eta/edo, geroago, Epaimahaiak deialdian egokitzen ez diren edo Sarien xede diren gaiekin zerikusirik ez duten lanak.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta Sariak baliogabe utzi ahal izango dira, bere iritziz, aurkeztutako lanek kalitate eta originaltasun-irizpide nahikorik betetzen ez badute edo ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

**4.2. Criterios de valoración**

La valoración de los trabajos para la concesión de los premios se hará de manera cualitativa en función de:

- Calidad del trabajo, donde se incluirán los objetivos debidamente definidos, la adecuación de la metodología, el diseño del proyecto, la minuciosidad del tratamiento de los datos y la claridad expositiva.
- Carácter innovador, relevancia y potencial de la propuesta, incluyendo: la novedad en la temática, enfoque o área y el impacto potencial, aplicación e interés social de las aportaciones.
- Aportación a los objetivos del Aula Janssen en Farmacología y de las Cátedras de Innovación en Red.

No se valorarán los trabajos que, en una primera fase, la Dirección del Aula Janssen y/o, posteriormente, el Jurado consideren no se ajustan a la convocatoria o no guardan relación con las materias objeto de los Premios.

El fallo del Jurado será inapelable, pudiendo dejar desierto los Premios si, bajo su criterio, los trabajos presentados no reúnen criterios de calidad y originalidad suficientes o no cumplen los requisitos establecidos.

### 4.3. Erabakia eta difusioa

Janssen Gelak deialdiaren emaitza argitaratuko du 2023ko azaroaren 30a baino lehen, Bertan, irabazlearen izen-abizenak eta saritutako lanak ezagutzera emango dira. Ebazpena pertsonalki jakinaraziko zaie irabazleei, haiek emandako harremanetarako bidearen bidez.

Sariak 2023-24 ikasturtea amaitu baino lehen egingo den ekitaldi akademiko batean banatuko dira, eta irabazleek ekitaldi horretara joateko konpromisoa hartuko dute saria jaso eta saritutako lanaren aurkezpen labur bat egiteko.

Sariak banatzeko ekitaldiaren argazkiak Janssen Gelako webgunean argitaratuko dira eta UPV/EHUk eta Farmakologiako Janssen Gelak egoki iritzitako hedabideen bidez zabaldu ahal izango dira. UPV/EHUren datuak babesteko politikari buruzko informazio guztia https://www.eh.eus/babestu estekan dago eskuragarri.

Deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

Leioa, 2023ko maiatzaren 18an

### 4.3. Resolución y difusión

El Aula Janssen hará público el resultado de la convocatoria antes del 30 de noviembre de 2023, dando cuenta del nombre y apellidos de las personas ganadoras y de los trabajos galardonados. La resolución se notificará personalmente a las personas premiadas a través del medio de contacto proporcionado por las mismas.

La entrega de los Premios se desarrollará en un acto académico que se celebrará antes de finalizar el curso 2023-24 y las personas premiadas asumirán el compromiso de asistir al citado acto para recibir el Premio y realizar una breve presentación del trabajo premiado.

Las información y fotos del acto de entrega de los Premios se publicará en la página web del Aula Janssen y se podrá difundir mediante otros medios que se estimen oportunos por la UPV/EHU y el Aula Janssen en Farmacología. Toda la información relativa a la política de protección de datos de la UPV/EHU se encuentra disponible en el enlace https://www.ehu.eus/babestu.

La participación en el Premio supone la aceptación de estas bases.

Leioa, a 18 de mayo de 2023

FARMACOLOGIA FARMAKOLOGIAKO UPV EHU AULA JANSSEN JANSSEN GELA

**J. Javier Meana**
UPV/EHUko Farmakologiako Janssen Gelako zuzendaria /
Director del Aula Janssen en Farmakologia de la UPV/EHU